

# Torrealdaik puntua jarrita

## Joseba Intxaustiri



**— Buru-belarri ibili zara, beste batzuekin batera, «Euskal Hitz» Euskararen I. Erakusketa Orokorra asmatzen eta antolatzen.**
**Ez al duzu uste erakusketa hau II. Euskal Mundu-Biltzarraren euskalduntasuna lejitimatzeko erabiliko dela?**

Lejitimazio-betekizun hori ere izan duen, edo izango duen, ala ez, arazo guztiz marjinala da lanean ibili garenontzat. Erakusketa bat, handiena izanik ere, beti da mikropolitikako anekdota bat, eta ez gehiagorik. Baina esanahi zabalagoko sintoma bat ere izan liteke. Bestalde, interpretazioetatik baino hobeki defini liteke, nik uste, bere edukinetatik «Euskal Hitz». Euskarari buruzko diskurtsu berritu bat gizarteratzea, besteak beste, erabat premiazkoa ikusi dugu. Ez dut dudarik: «Euskal Hitza»ek lagundu egin die Biltzar eratzaileei biltzar-oihartzunak gizartera pasatzen; baina, hain zuzen, egokiera horri esker egin da «Euskal Hitz», eta honek, seguraski, Biltzarrak baino bizitza luzeagoa izan lezake, herritarragoa, eta herri-mailan hizkuntz plangintza beteraztean emankorragoa eta beregaina. Beldurrez begiratzen ditugun arrisku eta errealitate eskasago posible haiek, sortuko balira, praxi irekiago batekin gelditu beharko ditugu, edo ez dugu, bestela, behar den abiadan aurrera egingo euskararen agonia aurrean garaiz ibiltzeko. Agintarien eta euskaltzalegoaren arteko harremanen birmoldaketa hasiko bagenu, guztion ametsetako plangintza lehenago etorriko litzateke, eta errazkiago beteko. Nork daki: beharbada, «Euskal Hitz»ekin *ere* hasi da elkar hizketa erosoago bat.

# Puntako argitalpenak

*Donostiako «Verdes» liburudendak emandako datuak*

## Literatur liburuak:

1.— «Irene. Tempo di adaggio», Pako Aristi. Erein.
2.— «Saturno», Arantxa Urretabizkaia. Erein.
3.— «Olagarroa», Mario Onaindia. Elkar.
4.— «Manu militari», Joxe Austin Arrieta. Elkar.
5.— «Teseu», André Gide. Elkar.

## Orotarikoak:

1.— «Larrun» aldizkaria, 5. zenbakia.
2.— «Euskal dialektologiaren hastapenak». Elkarren artean. UEU.
3.— «Euskal mitologia», Resano, Barandiaran... Pamiela.
4.— «Susa» aldizkaria, 21. zenbakia.
5.— «Euskal Gramatika. Lehen urratsak», Euskaltzaindia.





Aldizkari honi lagunduz, harpidedun eginez, zeure kulturari laguntzen diozu: euskal kulturari.

Bere historia osoan JAKIN beti ahalegindu da, eta gaur are gehiago ahalegintzen da, tresna bizia izaten euskal kulturari bultz egiteko eta azterketak bizkortzeko. Arintasuna eta sendotasuna bilatuz, egunekotasuna eta seriotasuna elkartuz, edozein arazotan sakontasuna lortu nahi du JAKINek.

Hori dena aski arrazoi da, gure ustez, zure laguntza itxaroteko, eta harpidetza txartela bete dezazula eskatzeko.

**Gure hitza ematen dizugu: harpidedunen ugaritzeak ekar lezan irabazi oro aldizkaria hobetzeko izango da oso-osorik.**

**HARPIDETZA TXARTELA**

JAKIN aldizkariaren harpidedun egin nahi dut:
Izena — Herria
Kalea — Tel
Gurutze (+) baten bidez adierazten dudan eran egingo dut urteko ordainketa
☐ txeke bidez ☐ renboltsoz ☐ nire Banku kontuaren bidez (bete beheko zati hau)

Banco o Caja de Ahorros — Banku edo Aurrezki Kutxa
N.° de cuenta / Kontuaren zenbakia
Sucursal / Sukurtsala
Titular de la cuenta / Kontuaren jabea
Entitate horretako nire kontuan zorpetu itzazue, mesedez, JAKINek nire izenean aurkez diezazkizuen erreziboak. Agur.
Sirvanse adeudar en mi cuenta con esa entidad los recibos que a mi nombre les sean presentados por JAKIN. Atentamente.

Firmado / Zinatzailea
Domicilio / Helpidea